

Ezagutzen nuelakoan

Joan Mari Torrealdei

Zabalik, 1999-12-04/05: 34.

Martin Ugaldere literatura venezuelarraen ale bat edo beste ezagutzen nuen. Euskaraz idatzitako ipuinak, gehientxoena, ezagutzen nituen. Gozatuz informatua nintzen ordurako bere Euskal Herriko historiarekin.

Atseginez deskubrituak nituen zenbait pertsonaia berari esker: Txillida, Barandiaran, Ibarrola, Arrupe, Sota. *Zeruko Argian* idazten eta *Deia* egunkarian idazteaz gainera zuzendari lanetan ere ikusia nuen. Eusko Jaurlaritzan euskararen arduradun zegoenean berarekin egona ere banintzen.

Ezagutzen nuen, hortaz.

Bada ez, gero konturatu naiz ezetz. Ezagutu, benetan ezagutu, 90eko hamarkadan ezagutu dut Martin, *Euskaldunon Egunkariako* abenturan. Bere aldamenen ibiltzeko zoriona izan dugunoi asko erakutsi digu Martinek. Martinen egiazko tamaina orduan ezagutu dugu: bera baino 20, 30, 40 urte . gazteagoekin parez pare lanean, euskaldunen aurreiritzi eta eszeptizismoari aurre egiten, agintari eta politiko askoren kontrairitziaren gainetik fin jokatzeko. Sekulako kategoria eta segurantzia erakutsi zigun. Are gehiago ezagutzeko aukera eta zorrea izan dut, geroztik. Elkarrizketa luze baten harira, bere bizitza hustu zidan Martinek, Andoainen hasi eta Caracasetik barrena Hondarribian gaur arteko bizitza osoa. Ez bi hitz, liburua osoa behar da Martin ezagutzeko eta zer-nolakoa den adierazte